

Trantsizio Energetikorako Bizi!ren Ituna Engaiamendutik... ekintzara

Hitza Hitz Batzordearen Lehen Txostenaren funtsezkoena



20, rue des Cordeliers karrika, 64 100 Baiona - Bayonne - info@bizimugi.eu - www.bizimugi.eu

Jatorrian, Tresna Kutxa bat eta Itun bat

2012 urtean, 2014eko martxoko hauteskundeak baino bi urte lehenago Bizi! hasi zen klima-energia arloko Tresna Kutxa baten lantzen, hauteskundeak diren hitzordu demokratiko horietaz, oihartzun kaxa baten egiteko, trantsizio energetikoaren alde, Ipar Euskal Herriko 158 herrien mailan.

2013ko martxoan argitaratua izan den Tresna Kutxa 53 ekintza bitzen ditu 13 arlotan: hirigintza, mugikortasuna, energia, eraikuntza, laborantza, oihana, ura, eremu berdeak, ekonomia, ondarkinak, kontsumo arduratsua, arrisku eta estrategia.

100 orriko dokumento horren ezagutarazteko eta ahal bezainbat herritar eta hautetsiri haren eskuratzeko parada eskaintzeko, sartzeko gako moduan Trantsizio Energetikoaren Ituna plantan emana izan da.

Hauteskundeetarik landa, Iparraldeko Biztanlegoaren $\frac{3}{4}$ biltzen dituen neurri orotako 30 herriko etxe, kudeatuak dira Trantsizio Energetikoa izenpetu duen auzapez baten taldeataz.

Zer da lehen txosten honen helburua?

Herriko Etxeekin batera eraman den lan luze eta bolondres baten fruitu honek 3 helburu ditu:

- Iparraldean Trantsizio Energetikoaren aintzinatzeari buruzko hausnarketa orokor baten eskaintzea Ituna izenpetu duten 30 Herriko Etxeetatik erantzunak ekarri dituzten 23en analisia lagun.
- Ituna izenpetu duten Herriko Etxeetako hautetsiak animatzea mobilizaturik egoiten eta beren ekintzen indartzea.
- Iparraldeko herritarrei gogoia ematea engaiamenduen gauzatzean adi egoitea, beren esku emanez jarraipen tresna ximple bat (herri mailako jarraipen fitxa bat).

Hitza Hitz Batzordea: herritar zaintza tresna

Hitza Hitz Batzordea sortu da hartuak izan diren engaiamenduak gauzatuak izanen direla segurtatzeko. Zinezko akuilu bat da, trantsizio energetikoaren aldeko herriko etxeko ekintzen animatzeko.

2014eko Herriko Etxeetako hauteskundeak duela bi urte pasa iragan dira eta Hitza Hitz Batzordeak bere lehen txostena argitaratzen du. Txosten horrek pundua egiten du Iparraldean Herriko Etheen mailan Trantsizio Energetikoaren arloko ekintzen aintzinatzeari buruz.

Txosten hau honela osatua da: 2012tik hasi den desmartxaren historikoa, gai/arloka analisi orokor bat Iparraldean Trantsizio Energetikoa nola aitzina doan aurkezteko eta 30 fitxa herriko aurkezten dutenak beren ekintzak eta gauzatzeak nola aitzinatzen diren.



Engaiamendu maila ezberdinak

Herriko Etxeen 2/3 (19) Itunean ziren ekintzen hautatzerat mugatu dira. Ekintza bat eta 10-en artean hautatuz.

Angelu (27), Baiona (35), Bokale (40) eta Kanbo (29) gehien ekintza hautatu dituzten herriak dira, beste herriak errex gaituz.

Ahurtik, hautatu dituen 3 ekintzekin, trantsizio energetikoarekiko interes tipia erakusten du, beste hainbat herri izenpetzailek bezala.

Orotara, 360 ekintza hautatuak izan dira Ituna izenpetu duten 30 herrietarik.

Hautatuenak izan diren 8 ekintzak

- 1- Eremu erabilpen zuhurraren lehenestea (30 herri)
- 2- Kontsumo energetikoen segipena (30)
- 3- Bio-hondakinen kudeaketa hobetzea (28)
- 4- Ondare eraikiaren birgaitze energetikoa abiaraztea (27)
- 5- Tokiko zirkuitu laburren garatzea (25)
- 6- Eguneroko bizian, mugikortasun modu aktiboak (oinez eta bizikletaz) garatzea (24)
- 7- EUSKO-aren eragile bilakatzea (10)
- 8- ENERCOOP-en harpidedun bilakatzea, (6)

Datuen bilketaren ondorioak

2016eko urtarrilean, Itunaren izenpetzaile diren 30 herriko etxeetako «trantsizio energetikoaren auzapez eta erreferenteak» hurbilduak izan dira trantsizio energetikoaren arloan, Ituna izenpetzean hartu zituzten engaiamenduen aitzinamenduari buruz punda egiteko.

30 Herriko Etxe horietarik 23k beren aitzinamenduen berri igorri digute. Biztanlegoaren 2/3k (+/- 200 000 pertsona) bizi dira 23 herri horietan. 7 herrik ez digute beren gauzatzei buruz informaziorik igorri. Haietan Hazparne eta Bokale azpimarratzekoak dira.

Hazparneko Herriko Etxeak argiki erran du legealdi aintzin ez zuela bilanik eginen. Jada 2015an bertako herritarrek trantsizio energetikoari buruz bilkura baten egitea galdegin zutelarik errefusa ukan zuten. Bokalek aldiz ez du berririk eman alta tresna kuxako 40 ekintza atxikiz aurreiritzi baikorrak bazituen bere alde.

7 herriko etxe horiek publikoki izenpetu dute Itun bat eta ondorioz engaiatuak dira hautatu dituzten klima-energia-ri buruzko ekintzetan. Hitza Hitz batzordeakdena eginen du gauzatzeak behar bezala aitzina ditezten.


Metodoa : herriko etxeen auto-ebaluazioa

Garrantzitsua da azpimarratzea herriko etxeek beren engaiamenduen gauzatzeari dagokionez beren emaitzen auto-ebaluazio bat egin dutela.

Herri horietako biztanleak gomiatuak dira Hitza Hitz Batzordearen ekintzen indartzerat batzordeari luzatuak izan zaizkion informazioaren kontrola segurtatzeko.

Herri baten trantsizio energetikoa neurtu oilar kukurusta diagramarekin

Oilar kukurusta diagramari esker begi ukaldi batez Herriko Etxe baten engaiamendu maila ikusten da eta engaiamenduen gauzatze maila ere. Forma borobila duen grafiko honi esker konparatzen ahal dira hautatuak izan diren engaiamendu bakoitzarentzat gauzatze aitzinamenduak zertan diren, herrika eta gaika bilduak izan ondoren Hemen behean Baionaren kasua:



Ausnarketa orokorra arloka

Sei arlo tratatuak dira:

- Urbanismoa eta lurralde antolaketa,
- Mugikortasuna,
- Energia (neurritasuna, eraginkortasuna, berriztagarriak)
- Eraikuntza (zahar-berritzea, sorkuntza),
- Laborantza, oihana, ura, eremu berdeak,
- Hondakinak


Horrezgain, puntu berezi bat egiten da euskal moneta sozial, ekologiko eta solidarioa den Euskoari buruz.

Ohartzen gira herriek guttiago indar egiten dutela hondarkinei, mugikortasunari eta kontsumo arduratsuari buruz diren engaiamenduen gauzatzeke aldiz energiaren, egoitzen eta hirigintzaren arloan ekintza gauzatu gehiago badira.

Demografia eta urbanismoa indartuz doazen testu inguru honetan, parte hartzen duten herriko etxeek garraio kolektibo eta berdearen arloan bildu duten atzerapena kezagarria da.

Hirigintza lurralde antolaketa

Bizi-ren klima-energia tresna-kutxak « Grenelle » delako legeen printzipio nagusiak jarraitzen ditu. Lege horien lehentasuna da eremua aurrezteko natural eta laborantzako guneak babesteko, urbanizazioa ontsa moldatzea, garraio alternatiboak kontutan hartzea autoa bazterrera uzteko (trena, busa, pirripita, oinez joitea, etabar).



Hainbat herrik erakusten dute beren borondatea laborantzako eremuak zaintzeko: hala nola Bidarte Babestutako Laborantzako Zonalde xedearekin, Kanbo, Jatxu, Maule. 2013az geroz Hiriburuk badu bere Tokiko Hirigintza Planoa (PLU grenelle). Herrien gehiengoak hasi da berrikusten bere hirigintza agiriak.. Etorkizunerako, kasu egin beharko da PLU berri eta Herriko karta horien egiazko eraginei.

Iparralde osoari dagokionez, HELEP berria gai izanen ote dea emaitza adierazgarriak ukaiteko laborantza-aktibitateak bultzatzeko eta garraio alternatiboak garatzeko arloetan? Hor ere, hirigintza agirietan diren printzipio nagusiak baieztatu baino haratago, ekintza zehatzek dute garrantzia ukanen.

Mugikortasuna

Mugikortasuna herri guztien afera da, edozoin izanikan ere beren neurriak edo beren kokapen geografikoak.



Garraioak gaitzeko berotegi efektuko gasak isurtzen dituen eremu batean eta auto individuala nagusiki erabiltzen delarik, hirietan kanpainetan bezalaxe, garrantzitsua da jende eta merkantzien mugikortasunaren arloan ekitea.


Bi hirigunetan (Aturri Euskal Kostaldea eta Hego Euskal Herria), 10 herrik izenpetu dute ituna, bilakaera azpimarragarriak zoriontzekoak dira: hiriko busen eskaintza hobetu da, norabide eta pirripita bideak garatu dira, pirripitak dohainik prestatzen dira, administrazioetako joan/jinen planoak apailatzen dira, etabar. Ekintza horiek 2014 aitzin bultzatuak izan dira eta oraindik jarraitzen dute gehiagoko sustengua merexiko lukeen abiadurarekin.

Aldiz, ohartarazi behar da baionako hirigunearen Tram'bus delakoaren egitasmoaren beranta biziki damugarria dela. Hastapenean, 2016an plantan emana izan behar zena, orain ez da 2019 aitzin iragarria.

Hirigunetatik kanpo eta edozein herrien heina izan, hiriarteko busen erabilpena eta garraiatzeko beste praktikak lehenesteko ekintzak abian emanak dira. Haatik, ekintza horien gaitasuna maiz mugatua eta eskasa da.

Ez dela aterabide bakarra kontsideraturik, espero izan behar dugu Herriarteko Lankidetzarako Erakunde Publikoaren (HELEP) sortzeak ekintza koordonatuak eta eraginkorrak plantan ezartzen erretuko duela, ezinbesteko auto-pozoinatzea behin betiko saihestuz.

Energia



30 herri izenpetzaileek ekintza bat bederen hautatu dute energiaren arloan.

Zenbait herrik segurtatzen dute aldizkako jarraipen bat, hilabetetik urtera joaiten dena: Angelu, Bidarte, Hiriburu.

Ainitz herrik hautatu dute argitze publikoaren optimizazioa baita energia berriztagarrien garapena ere.

Segitzeko bi etsenplu:

- Uztaritzek I-Ener sozietateari bi bastimendu publikoen teilatuak eskaini dizkio zentral fotoboltaiko baten ezartzeko. Parte bat aurrezte herritarrari esker diruztatua da.
- Lekorne da gauregun ENERCOOP (tokian ekoiztutako energia berriztagarriaren %100) elektrizitate ekoizlearekin kontratatu duen elektrizitate hornitze harpidetzaren Euskal Herriko herri bakarra.




Eredugarriak diren operazio batzu salbu, energiaren arloan emanak diren ekintzak kazkarregi dira. Alta, herriek goraipatzen duten gaia da.

Aitzinatzeko, energia-kontsumoaren jarraipena sistematizatu behar da, gela publikoen erabiltzaileak sentsibilizatzeko ekintzak antolatu behar dira, berriztagarriak garatu behar dira, gauazko argitze publikoak itzali behar dira ahal den neurrian, etabar.

Eraikuntza

Entre rénovation de bâti ancien et construction Zaharberitze eta eraikitze berrien artean ez dira falta etsenpluak Bizi-ren trantsizio energetikoaren ituna izenpetu duten herrietan.



Zaharberitzeari dagokionez, diagnosi energetikoak egin eta herri ainitzek beren eraikinen performantzia energetikoak hobekitzeko lanak gauzatu dituzte.

Prekaritate energetikoa borrokatzeko, herri batzuk xuxenki edo herri elkargoen bidez parte hartzen dute delako « Bien chez soi » programan, Pirinio Atlantikoko Departamenduak gidatzen duena.

Eraikuntza berriari dagokionez, araudi termikoaren aitzinamendu berriek obralariak behartzen dituzte energia gero eta gutiago kontsumitzen dituzten eraikinak eraikitzea. Baina RT2012 baino urrunago joan eta tokiko eraikuntza materia bio iturri erabili nahi duten herri oso guti da.

Hiru errealizazio adibide besten artetik: energia positiboko eraikina bezala aurkeztua den Bidarteko eskola / Maulen dagoen Hiribarne gazteluaren berritze/luzatzea / BBC-an (bâtiment basse consommation/kontsumo apaleko eraikina) burutu Arrosako zerbitzuetako etxea.



Hiribarneko jauregia Maulen

Etorkizunean energia kontsumo eta ekoizpen mailan eredugarriak diren eraikin publikoen zerrendatze bat egitea interesgarria litzateke. Horrek suposa lezake aldi berean material teknikoa eta erabiltzaileen portaerei ekar daitezkeen zuzenketa neurri betzuk abian ezartzea, jarraipen erregular batekin.

Ondare eraiki publikoaren behatoki bat sortuz, tresna baliagarri bat plantan ezar daiteke datorren Euskal Herria Hirigunearen zuzendaritzapean.

Laborantza, oihana, ura, gune berde

Herri guziek behar dute laborantza kudeatu haien hirigintza dokumentuetan, laborantzako eremuen zaintza (azkenean) lehentasunezko helburua bilakatu delako.

Honela, laborantza sendotua izanen da, bistan dena Euskal Herriko baserri guneeetan, baina ere berriz hedatua hirien inguru hurbiletan, tokian berean kontsumitua izan behar duen elikadura ekoizteko argiki iragarri perspektiba batean.



Horretarako herriek zeregin nagusi bat jokatu behar dute: laborantzako lurren zaintza hirigintzako dokumentuetan, hurbileko zirkuitu laburren garapena, zuraren erabileraren garapena oihanen kudeaketa arduratsu baten baitan, etab. Ekintza guzi horiek Bizi !-ren klima-energia tresna kutxan aitzinatuak dira.

Hitzarmena izenpetu duten herriek abian ezarri dituzten ekintzak usu (baina ez da gaizki jadanik) AMAP-entzat lokalak prestatzean, ekoizle merkatuak noizbehinka antolatzean, laborariei herriko laborantza lurak esku utziz laguntza bat ekartzean mugatzen dira.

Adibidez, Urketa herriak sostengua ekarri du arditegi gasnategi baten plantatzeari laguntza eskainiz. Honen mozkinak zirkuitu laburrean salduak izanen dira.

Elikadurari dagokionez, herri askok aitzinera ekartzen dute bio (eta batzuetan) tokiko apairuak eskoletako jantegian zerbitzatzea. Angelu hiriak adierazten du bertako jantegietan eskaini fruitu eta barazkien %100 laborantza biologikotik datorrela.



Garro Eremua Lekornen

Zenbait urte abian ezarria izan ondoren, Lekorneko Garro egitasmo eredugarriak zailtasunak ditu bere adibidea beste batzuek segi dezaten eskoletako jantegiak hornitzeko eta bio eta tokiko mozkinen ekoizpena orokortzeko.

Gauza anitz egin daiteke herriek parte har dezaten lurralde antolaketa, paisaien zaintza, elikadura eta osagarriaren bateratzean kokatzen den laborantza arloaren dinamizazioan.

Merexi luke funtsezko lan bat eramatea tokiko laborantza munduarekin partaidetzan lurraldeko elikadura subirotasuna bila lezakeen Euskal Herriko laborantza egitasmo bat plantan ezartzeko. Sortuko den Euskal Herria hirigunearen izariko gidaritzak bat egingarria daiteke?

Hondarkinak

Trantsizio energetiko hitzarmena izenpetu duten 30 herrietako 28k hautatu dute bio hondarkinen kudeaketaren hobetzea bilatzen duen ekintza hautatu dute.

Bio hondarkinen abantaila da haien ekoizleengandik biziki hurbil balioan ezarriak izan daitezkeela, konposta gisa, norberak edo kolektiboki eginez, auzotegi mailan edota ekoizpen eremu zabal batean, bio hondarkin horien bilketa selektibo bat eramaten baldin bada bederen, ondotik konpostatze gunera batera eramateko.



Bio hondarkinen bilketa selektibo adibidea Usurbilen (Guipuzkoa)

Herri izenpetzaileen abian ezarri ekintzek usu bakarkako konpostatzaileen banaketan oinarrituak dira eta, batzuetan, konpostatzaile kolektiboak plantan ezarritik.

Hirigune eta Herri Elkargoen eskumenen artekoa baita hondarkinen bilketa, ez du herri batek ere bio hondarkinen bilketa berezirik plantan ezarri. Esperimentazio desiragarri hau kontrajarria daiteke BIL TA GARBI-k atxiki Tri Mécano Biologique hautu teknologikoarekin. Hautu horren bitartez, bio hondarkinen sailkapena makina bati eskainia zaio kate muturrean, eta ez iturrian, hondarkin hauek sortzen dituen herritarrari.

Berotegi efektuzko gasen isurketen murrizketa arloan hondarkinek askoz eragin gutiago badute ere garraioak, bizitegiak, energia ekoizpenak eta laborantzak baino, arrunt baztertu behar dugun kontsumitze gizarte baten isla dira.

Euskoa : euskal moneta soziala eta ekologikoa

Euskoa trantsizio ekologikoaren tresna bat da, lurraldearen egokitze gaitasuna indartzea ahalbidetzen baitu tokiko harreman ekonomikoak errestuz. Beste gisa batez erraiteko, euskoa ekonomiaren bertokiratzearen tresna bat da. Bestalde, bizi publikoan euskararen erabilpenaren eta presentziaren indartzean parte hartzen du. Azkenik, mundu ekonomikoan eta elkarte munduan elkartasunak sortzen ditu.



2014ko martxoan, euskoak urte bat baizik ez zuenean, Bizi!ren trantsizio energetikoaren ituna izenpentu zuten 30 herrietarik 10ek hautatu zuten euskoa den tokiko moneta ekologiko eta solidarioaren aktore bilakatzea : Angelu, Baiona, Izpura, Jatsu, Lehuntze, Makea, Lekorne, Muskildi, Hiriburu, Milafrangak.

Horretarako lan anitz badugu burutzeko, zinezko bataila kulturala dugu aitzinean hondarkinen ekoizpena iturritik molde esanguratsuan murrizteko gisan (estalkin gutiago, enpoilketa gutiago, berrerabiltze gehiago, etab...)

2016 urte hastapenetik euskoa kudeatzen duen Euskal Moneta elkartearen baitan, kolektibitate publikoen talde bat sortu da. Bertan biltzen dira jadanik Hendaia, Lekorne eta Uztaritze.

Bizi!-k «eusko» ekintza hautatu duten beste 8 herri sinatzaileak, aintzindariak diren 3 herriein batera tokiko moneta horren aktore bilakatzea sustatzen ditu, batez ere monetaren erabilpena ahalbidetuz xerbitxu publikoetan (eskolako jantokiak, garraioak, mediateka, aisialdi gunek, etab...).

La monnaie locale Eusko Eusko tokiko moneta



Beraz, bide onean ote gira ?

Ez aski batzuentzat, nahikoa beste batzuentzat, trantsizio energetikoaren aintzinamendu orokorra ebaluatzeko manera aldatzen da, larrialdi klimatikoaz ebaluatzaileak duen ikumoldearen heinaren arabera.

Hitza hitz taldearen lehen txostenak argiki erakusten du bidea emeki eta artetan nekez egiten dela trantsizio energetikorantz Iparraldean.

Beharrezkoa izanen da laster abiaduraz aldatzea. Larrialdi klimatikoak ez dauku hauturik uzten. Kontzientzia hartzearen ondotik, ekintzaren aroa izan behar da. Eta beharrik, tresnak hor dira Bizi !-ren klima-energia tresna kuxak erakusten duen bezala.

Mugimendua nola haunditu eta trantsizioa nola kausitu ?

Iparraldean trantsizio energetikoa haunditzeko palanka bat baino gehiago baliatu behar dira :

1. Trantsizio energetikoaren ituna izenpetu duten herrien kopurua haunditu, desmartxari lotzeko forma bat proposatuz izenpetu ez duten 128 herriei.
2. Izenpetu duten herriek klima-energia tresna kuxan duten ekintza kopurua haunditu eta ekintzen bururatzak haunditu.
3. Iparraldeko biztanleak trantsizio ekologikoaren eragile izaitera bultzatu, beren herrian edo bizi eremuan, hautetsien mugiarazteko trantsizio energetikoaren alde eta ere garraio, elikadura, energia... arlo desberninetan alternatibak erabiliz

Lehen txosten bat, eta gero?

Hitza hitz taldearen lana indartuko da tokian tokiko laguntzaile eta langileen dinamizazioarekin, herri eta biztanleen arteko topaketa berrien bidez, herritar jarraipen permanente baten baitan.

2018 urtean bigarren txosten bat plazaratua izanen da. Aintzinamenduen neurketa zehatza egiten ahalko da 2016 urteari konparatuz, herrikako fitxa indibidualei esker.

Oraino usu, eskas da borondate politiko azkar baten pindarra, oraino nahikunde ekologiko gutti duten herritarrak bultzatzen ahalko lituzkena.

Belaunaldi bat badugu dena aldatzeko: gure mugitzeko moldeak, gure etxebizitzak, gure elikadura, gure aisialdiak, gure kontsumoak, etab...



Trantsizio energetikoaren alde Iparraldeko herrien mailan lau urtez lan egiteak ahalbidetu du hiru erreusitze faktore nagusiak identifikatzea:

1. auzapez (bereziki) eta hautetsi (baita ere) deliberatuak trantsizio energetikoaren alde egitea,
2. alternatiba zehatzak azpiegitura kolektiboek beren gain hartzea,
3. herritarrak (numbrean) herriko hautetsiek gauzatzen dituzten ekintzen segitzea, betiere prozesu demokratiko baten baitan.

Bizi !-ren klima-energia tresna kuxak desmartxa horretan, lurraldeko eragile desberdinen arteko harremanetan katalizatzailearen papera bete dezake. Denen artean dugu kausitu behar!

Tresna kutxa berri bat eta trantsizio energetikoaren itun berri bat 2018tik goiti landuak izanen dira, 2020ko herriko hauteskundeei begira.

Herriarteko sail bat proposatua izanen da klima-energia oinarri programatiko gisa Ipar Euskal Herri elkargoarentzat.

Manu Robles-Arangiz Fundazioan
20, Cordeliers karrikan Baiona Ttipian

30 Herriko Etxe

bizi !